



Telebista >

# Euskaraz eta internetez

## Proyección ekoiztetxe bilbotarrak bost kanal dituen euskarazko telebista jarri du sarean doan


**Sareko** lehenengo euskal telebista ipini du martxan Proyección ekoiztetxe bilbotarrak. Pasa den irail aldera hasi zuen ibilbidea internet bidez zabaltzen den euskarazko telebistak. [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv) da helbidea eta doan eskura daitekeen zerbitzua da.

Oraindik ez du zuzeneko emanaldirik eskaintzen; hala ere dituen bost kanaletan ikuskizun, hitzaldi edota albisteen edukia oso-osorik igortzen dituzte. Esan legez, bost dira kateak: Hitzaldia, Albisteak, Turismo erreportaiak, Expo-art (erakusketak) eta Zabalik (Erakunde eta enpresen ekitaldien in-

**«Hitzaldiak, albisteak, turismo erreportajeak, Expo-art erakusketak...»**

formazioa, agenda, prentsa-oharrak...). Azken kate hau, ohiko publizitate iturriak batera da euskaraz.tv-k duen diru iturri barrara, hau da, erakundeek eta enpresek beren jarduerak Zabalik-en iragartzeko ordaindu behar duten zenbatekoa.

Proyección ekoiztetxea 1990ean sortu zen, telebista programak ekoizteko helburuz. 2001ean Proyeccion.tv erderazko internet bidezko telebista sortu zuen, eta 2004. honetan martxan da euskarazkoa.



Euskaraz.tv ikusi ahal izateko interneterako konexioa, gutxienez Pentium II ordenagailua eta Real Video programa behar dira. Azken programa informatiko hau ez daukan erabiltzaileak euskaraz.tv helbidetik jaitsi dezake. Beraz, internet bidezko lehen telebista euskalduna jaio berri da, eta berori eskuratzea doakoa da. ○

Telebista >

# Europa euskaraz

Europa euskaraz saioa eskaintzen hasi dira ETB-1en. Europako hainbat hiri eta herrialde ezagutzeko aukera ematen du saioak, euskaldunen eskutik eta euskaraz gainera. Orio Produzioak ekoiztetxeak egindako ekoizpena da, eta sei bat kapitulu eskainiko dira. Jon Plazaola aurkezle gazteak gidatzen du saioa, eta bere eskutik Amsterdam, Berlin, Lisboa, Dublin edo Praga bezalako hiri eta herrialdeak bisitatzeko eta ezagutzeko aukera izango du ikusentzuleak. Horrez gain, herrialde horietan bizi edo egonaldian dauden euskaldunak elkarrizketatuko dituzte, euren eskutik herria hobeto ezagutzeko eta bitxikerien berri eman ahal izateko. Esan dugun legez, sei dira oraingoz grabatu dituzten kapituluak, baina baliteke gehiago ere ekoiztea. Beraz, Europako zenbait hiriburua euskaldun batzuen ikuspegitik zelakoak diren ezagutzeko aukera ematen du saioak.



aldizkaria etxean  
jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

UK Urteko Kontako Aldizkaria 171. printze liburua  
Amen 6, 4. solairua 5. bulego / 49100 Ormaiztegui  
uk@aldizkaria.ez / tel: 94 491 13 37 / fax: 94 491 38 31

## uhinakFM

Gebo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pittako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

# EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34